Info Bilbao

BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# BILBOK MARTXOAREN 8A, "*EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA*", OSPATUKO DU

- **Udalak, aurreko urteetan bezala, bat egin du EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak proposatu duen adierazpenarekin.**

*(Bilbo, 2020ko martxoaren 6a).* Bilboko Udaletxean egin da, gaur goizean, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak martxoaren 8a, emakumeen nazioarteko eguna, ospatzeko proposatu duen adierazpenaren irakurketa instituzionala. Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Nekane Alonso Berdintasuneko zinegotziak eta udal ordezkaritza duten talde politiko guztietako bozeramaileek parte hartu dute irakurketan. Ekitaldi honetan, modu berean, udalbatzarreko beste kide batzuk egon dira, baita Berdintasunaren aldeko Bilboko Emakumeen Kontseiluko ordezkariak ere.

Ekitaldian, udalak berdintasunaren alorrean dauzkan konpromisoak jakitera eman dira. Gainera, adierazi dute Bilboko Udalak bat egin duela adierazpen instituzionalaren testuarekin. Modu berean, udalak herritarrak gonbidatu ditu Mugimendu Feministak datorren domekarako, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta deitutako mobilizazioetan aktiboki parte hartzera.

**EUDEL-en adierazpen instituzionalak** gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren balioa bere egiten du. Gainera, adierazten du berdintasun hori benetan gauzatu beharra dagoela, eta eguneroko bizitzara ekarri. Izan ere, aurrerapen asko egin diren arren eta berdintasuna formalki onartuta dagoen arren, praktikan ez da benetan betetzen, emakumeek eta gizonek ez baitituzte eskubide berberak.

Giza eskubideen defentsan jarraitu beharra dago, genero-berdintasuna lortzeko, garapen jasangarriaren helburuetan jasotzen denez. Gizarteak mezu bateratua izan behar du gai honetan: berdintasuna.

*Eranskina: Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) proposatutako adierazpena.*

## SARE SOZIALAK

**BILBAO BERDINTASUNA**:
- Facebook
- Twitter

**BILBAO UDALA**:
- Facebook
- Twitter
- Instagram

**#Martxoak8 #8Marzo #Bilbao #EmakumeenNazioartekoEguna #DiaInternacionalDeLasMujeres**

# BILBAO CONMEMORA EL 8 DE MARZO, *“DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES”*

- **El Ayuntamiento se ha adherido, al igual que en años anteriores, a la Declaración propuesta por la Asociación de Municipios Vascos-EUDEL.**

*(Bilbao, 6 de marzo de 2020).* El Ayuntamiento de Bilbao ha acogido esta mañana la **lectura institucional** de la Declaración propuesta por la Asociación de Municipios Vascos-Eudel, **para conmemorar el 8M, “*Día Internacional de las Mujeres”.*** El Alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto, la Concejala de Igualdad, Nekane Alonso, y los portavoces de todos los grupos políticos con representación municipal han participado en la lectura, en la que han estado presentes, asimismo, otros miembros de la Corporación, junto a diversas representantes del Consejo de Mujeres de Bilbao por la Igualdad.

El acto ha servido para dar a conocer los compromisos municipales en materia de igualdad y la adhesión del Ayuntamiento de Bilbao al texto de la declaración institucional. De la misma forma, el Consistorio invita a la ciudadanía a participar activamente en las movilizaciones convocadas por el Movimiento Feminista para este domingo, 8 de marzo, con motivo del “*Día Internacional de las Mujeres*”.

La **Declaración Institucional de EUDEL** recoge el valor capital de la igualdad entre hombres y mujeres, así como la necesidad de un reconocimiento efectivo de la misma para trasladar a la vida cotidiana lo que, pese a los progresos y al reconocimiento formal, no es una realidad en la práctica, donde mujeres y hombres no disfrutan de los mismos derechos.

Es necesario seguir reivindicando la defensa de los derechos humanos para lograr la igualdad de género, tal y como se recoge en los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y de proclamar la igualdad como un único mensaje de manera conjunta por parte de toda la sociedad.
*Adjunta Declaración propuesta por la Asociación de Municipios Vascos-Eudel*

**REDES SOCIALES**

**BILBAO BERDINTASUNA**:

- Facebook
- Twitter

**BILBAO UDALA**:

- Facebook
- Twitter
- Instagram

**#Martxoak8 #8Marzo #Bilbao #EmakumeenNazioartekoEguna #DiaInternacionalDeLasMujeres**